

OHIZKO OSOKO BILKURA

2016.05.31

Tolosako Udaletxean, 2016ko maiatzaren 31n, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 31 de mayo de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behneko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2016ko apirilaren 26ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 26 de abril de 2016.

- | | |
|---|--|
| 2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2016ko apirilaren 1etik 30era (2016/587-2016/814). | 2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 de abril de 2016 (2016/587-2016/814). |
| 3. 2016/773 dekretuaren berri ematea: Kirol Batzorde informatiboko lehendakariaren izendapena. | 3. Dar cuenta del decreto 2016/773: Nombramiento del Presidente de la Comisión Informativa de Deportes. |
| 4. Gorte Nagusietarako 2016ko ekainaren 26an egingo diren hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko zozketaren berbaieztapena. | 4. Ratificación del sorteo de los componentes de las Mesas Electorales para las Elecciones a Cortes Generales a celebrarse el 26 de junio de 2016. |
| 5. Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal hilerrien kudeaketa integrala emateko kontratuaren luzapena | 5 Prorroga del contrato de gestión integral de los Cementerios municipales de San Blas, Bedaio y Aldaba. |
| 6. 2/2016 Kreditu aldaketaren hasierako onespena. | 6. Aprobación inicial del expediente de Modificación de créditos 2/2016. |
| 7. 1/2016 eta 2/2016 Kreditu aldaketen espedientei buruzko Kontuhartzaile txostenaren berri ematea. | 7. Comunicar el informe de Intervención relativo a las Modificaciones de Crédito 1/2016 y 2/2016. |
| 8. Brigadako arduradunaren lanpostuko balorazioaren eta lanpostu zerrendaren aldaketaren onarpena. | 8. Aprobación de la valoración del puesto de Responsable de la Brigada y modificación de la relación de puestos de trabajo. |
| 9. Udal ordezkariaren izendapena Haurreskolak Patzuergoan. | 9.- Nombramiento del representante municipal en el Consorcio Haurreskolak. |
| 10. EHBildu alderdiak Tolosaldea osasungintza ereduaz aurkeztutako mozioa. | 10. Moción presentada por EHBildu relativa al modelo de sanidad de Tolosaldea. |
| 11. Galderak eta eskaerak. | 11. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1. Ondorengo akta onartzea:

2016ko apirilaren 26ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

1. Aprobación de la siguiente acta:

Sesión ordinaria del 26 de abril de 2016.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2016ko apirilaren 1etik 30era (2016/587-2016/814).

Alkatetzak 2016ko apirilaren 1etik 30era bitartean (2016/587-2016/814) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 de abril de 2016 (2016/587-2016/814).

3. 2016/773 dekretuen berri ematea: Kirol Batzorde informatiboko lehendakariaren izendapena.

3. Dar cuenta del decreto 2016/773: Nombramiento del Presidente de la Comisión Informativa de Deportes.

2016/773 Alkatearen dekretuak honela dio:

“OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana

Udalbatzak, 2015ko uztailaren 7ko erabakiaren bitartez, Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onesten duen 2.568/86 Errege-Dekretuak 38. artikuluan xedatzen duena betez, batzorde informatiboak sortzea eta hauen konposaketa erabaki zuen.

Kontuan izanda, alkateak ahalmena duela batzorde informatiboan Lehendakariak izendatzeko, hura baita batzorde hauen lehendakari titularra

Ikusirik Jose Ignacio Asensio Bazterra Kirol batzordeko lehendakariak zinegotzi karguari uko egin eta ontzat eman zela, 2016ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran, lehendakari berria izendatu behar da.

Ondorioz, Alkatetzak

ERABAKI DU

Lehenik: PSE-EE (PSOE) alderdiko zinegotzia den Cristian Fernandez Susin Kirol batzordeko lehendakari izendatzea.

Bigarren.- Dekretu honen atzera-eragina 2016ko apirilaren 1ekoa izatea.

Hirugarren.- Ebazpen honen berri ematea aipatutako zinegotziari, Kontuhartzaitza departamentuari eta Udalbatzari.”

Udalbarkideak jakinaren gainean geratu dira.

4. Gorte Nagusietarako 2016ko ekainaren 26an egingo diren hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko zozketaren berbaieztapena.

4. Ratificación del sorteo de los componentes de las Mesas Electorales para las Elecciones a Cortes Generales a celebrarse el 26 de junio de 2016.

Tolosako Udaletxean, 2016ko maiatzaren 30ean, egin da ekainaren 26an izango diren hauteskundeetako mahaia osatzeko kideen zozketa. Zozketaren funtzionamendua laburbilduta hau da:

Gainetik azalduta, hauteskundeetan ematen den funtzionamendua honako hau da:

- INE erakundeak mahaien zerrenda bat bidaltzen du hauteskundeak izan baino hilabete lehenago gutxi gora behera. Mahaien zerrenda horietan hauteskundeetan egokituko diren mahaia agertzen dira, beraien helbide eta guzti. Orduan udaletxeek datu horiek aztertu eta oniritzia eman behar diote edota aldaketak proposatu (eskola bat ez dagoelako orain edota obretan daudelako,...) Beraien artean beraz adosten dira zeintzuk izango diren mahaia. INE-koek hau egin aurretik proposatzen dute (beharrezkoa denean) mahai gehiago sortu edota mahairen bat kendu behar dela. Azkenean helburua mahaia definitzea da eta akordio batera iristea, baina hauteskundeak baino askoz aurretik definitzen dira. Informazio honekin, gure datu basean *mahaia* izeneko taula bat osatuko dugu.
- INE erakundeak Web bitartez CONOCE programa eta hautesleen zerrenda eskuragarri jartzen digu (lehen CD bidez bidaltzen zituen) hauteskundeak izan baino hilabete lehenago. Lehenengo programa instalatu beharra dago, eta gero hautesleen datu basea jartzen digu, hautesleek beraien datuak kontsultatu ahal izango dituzte udaletxean eta erreklamazioak ere programa honen bidez egin ahal izango dira udaletxean bertan.
- Erreklamazio garaia bukatzen denean, eta aurreko programaz baliaturik, INEK zozketarako hautesleen fitxategi definitiboa Web bidez jeisteko jartzen du eta guk zozketarako fitxategia sortzeko CONOCE-ko *Generar Ficheros programa* exekutatu dugu, ondoren, nolako fitxategia sortu nahi dugun aukeratu behar dugu, lau mota azaltzen zaizkigu :

Formato anterior :

- Longitud fija (756 caracteres)

- Separado por (;)

Formato servicio de información (SI) :

- Longitud fija (791 caracteres CER ó 817 caracteres CER+CERE)

- Separado por (;)

Gure kasuan, aurreko formatuko "separado por (;)" aukeratuko dugu.

Ondoren, Populazio-eremua aukeratuko :

- Hautesle guztiak

- 70 urtetik beherako hautesletoa eta titulazio maila 40 (BUP, FP edo gehiago).

- 70 urtetik beherako hautesletoa eta titulazio maila 30 (graduatu eskolarra edo

parekoa).

- 70 urtetik beherako hauteslegoa eta titulazio maila 20 ego gehiago (irakurtzen eta idazten dakitenak).

Udaletxe bakoitzaren esku dago zein aukeraketa egin. Tolosan laugarren aukera erabiltzen dugu, 70 urtetik behera eta idazten eta irakurtzen dakitenak.

Orain, zein Errolda eremu aukeratu behar dugu:

- CER
- CER y CERE

Beti lehenengo aukera hartzen dugu, CERekoek nahiz eta botoa eduki erbestean daudenen zerranda baita eta zozketarako ez zaigu baliagarri.

Prozesu honek testu fitxategi bat sortzen du egitura berezi batekin.

- Orain CONOCE-ko programa alde batera utziko dugu eta udaletxean dugun zozketa.mdb access base datua zabalduko dugu. Datu base honen bidez, aurretik sortu dugun testu fitxategia kargatuko dugu. **Hautesleen artetik, Tolosan beste iragazpen batzuk ere ezartzen ditugu. Adibidez, hauteskundeetan aurkezten diren pertsonak, mahai arduradunak e.a. baztertzen ditugu, zozketan parte har ez dezaten.** Hautesleen poltsa prestaturik, pleno aretoan zozketa egiten dugu *zozketa.mdb* erabiliz, eta zozketa burututakoan hainbat agiri eta jakinarazpen inprimatzen ditugu programa honen bidez. Gero erreklamazio epea hasten da, eta programa berarekin kudeatzen ditugu ordezkapenak. Onartzen diren erreklamazioetan hurrengo sistema erabiltzen dugu:
Erreklamazioa mahaiburuak egin badu, mahaiburuen lehenengo ordezkoak hartzen du bere tokia eta bigarren ordezkoak lehengo ordezkoaren tokia. Bigarren ordezkoaren tokia hutsik geratzen da. Kasu berezietan eta hauteslerik geratzen ez bada, zerrendako hurrengo hauteslea hartuko litzateke.

Hortaz, Udaltzak, aho batez, berbaieztatu ditu zozketan ateratako emaitzak, dagokion espedientean jasotzen direnak.

5. Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal hilerrien kudeaketa integrala emateko kontratuaren luzapena.

5 Prorroga del contrato de gestión integral de los Cementerios municipales de San Blas, Bedaio y Aldaba.

2011ko uztailaren 22an, Tolosako Udalak eta Servicios Funerarios Oria, S.L., enpresak kontratua sinatu zuten Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal hilerrien kudeaketa integrala emateko. Kontratu hori, 201ko urtarrilaren 28an, Funeraria Oyarbide, S.L., enpresari transferitu zitzaion.

Kontratu horren emakida-epea bost urtekoa zen, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Emakidun enpresak, 2016ko urtarrilaren 14an bidalitako idatzi baten bidez, emakida luzatzea eskatu zuen.

Hortaz, gaia aztertu ondoren eta Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuetako batzordeak 2016ko martxoaren 16an jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Udaltzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena: Luzatzea Funeraria Oyarbide, S.I., enpresari 2011ko uztailaren 22an sinatutako kontratua, Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal hilerrien kudeaketari integrala emateko. Dena den, kontratuaren luzapena egin aurretik zerbitzuaren arduradunak txostena egin beharko du kontratuaren betebeharrak aztertuz eta egin beharrekoak proposatuz.

Bigarrena: Kontratuaren epea honela finkatzea: 2016ko abuztuaren 1etik 2021eko abuztuaren 1era.

Hirugarrena: Kontratuaren prezioa, luzapenean, honako hau izango da: 32.300,00 euro urteko

Laugarrena: Erabaki honen berri ematea emakidadun enpresari eta kontuhartzaitzari.

6. 2/2016 Kreditu aldaketaren hasierako onespena.

6. Aprobación inicial del expediente de Modificación de créditos 2/2016.

Partehatzeak:

... Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV): "Aurten egingo den bigarren kreditu aldaketa honetan mugitu egingo ditugu 2.373.300 €. Diru hau finantzatzeko lau iturri ezberdinak erabili ditugu: 22.500,00 € kreditu transferentzien bidez, 36.782.00 € kanpoko ekarpenekin, 8.800 € gastuei lotutako gerakinetatik eta beste 2.337.718€ gerakinetatik edo deitutako remanentetatik. Laburbilduz, adierazten badugu diru hauek nola banatu diren, horrela izan da: 185.000 € Udal langileei 2012 urteko aparteko paga ordaintzeko. Horrez gain, Bidebieta, Bizkai eta Izaskun auzoko bigarren faserako jarrita dauden 636.000 €; Paper Eskolako igoeraren konponketarako, 435.000,00 €; Gaztelako atearen berrikuntza, 75.000 €. Baita ere, hainbat proiektu eskatu, 68.000 €; Oriaburu eraikinean egokitzapen lanak egiteko, 120.000€. Bestalde, Berazubi auzorako lokalak egokitu eta ekipatzeko, 181.000 €; Feriala egokitzea, 120.000€. Horrela banatu egin dira 2.373.300 €. Beraz, hau da proposatuko genukeen bigarren kreditu aldaketa."

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): "Kreditu aldaketekin berez ez daukagu arazorik, baina oso larrituta gaude funtzionatzeko moduarekin. Aurrekontuak onartzeko plenoan salatu genuen bezala, gaur ere ildo berdinetik diogu, Udal bateko aurrekontuak jaso behar dituztela urte osoko proiektuak, plangintzak edo ildo nagusiak. Eta momentuan, horrela deitu zenietelako, transiziozko aurrekontu haiek onartu zenituztelako, horren ondorioz datoz orain egiten diren kreditu aldaketa hauek; remanentetik tiratzen da ia guztia. Aipatu duzun bezala, bi milioi eurotik gora remanentetik erabiltzen dira, ia aurrekontuan %10a suposatzen duena. Orduan aipatu zen gauza bera, gure ustez aurrekontuek jaso behar dituzte ildo nagusi horiek eta ez proiektuak datozen bezala, bat-batekotasun horretan, aurrekontuetan txertatu. Bestalde, ez dakigu zer ulertzen duzuen partehartzeaz. Izan ere, 2015eko aurrekontuen likidazioaren

emaitza ezagutu bezain pronto idatzizko proposamen bat helarazi zitzaizuen emaitza horiek ikusita. Batez ere, ikusita ze proiektu gauzatu gabe gelditzen ziren, likidatzen ziren. Horiek guztiak aurrekontuetan txertatzeko proposamena. Alde batetik, 2015eko aurrekontuetan herritarrekin, partehartze prozesu baten bitartez, erabakitako proiektuak bertan behera gelditzen zirela ikusita, proposatu zitzaizuen barneratzea kreditu aldaketa honetan. Eta, bestetik, ikusita merkataritza sailean, merkataritza sustatzeko, 120.000€ gora gelditzen zirela likidatuta erabili gabe, proposatzen zen diru hori ere barneratzea. Eta bi proiektu, bat, Nafarroa etorbideko berrurbanizazioa urteko anitzeko plangintza batekin eta, bestetik, Berdura plazan orain dela hiru urte Kale Nagusian burutu zen proiektua gauzatzea. Kezkagarria iruditzen zaigu Udalak bere horretan herritarrekin hartutako konpromisoak bete ez direlako, parteharzte prozesu horren bitartez eta ez dugulako inongo fororik eduki proposamen hau aztertzeko. Orduan, bi pintzelada sartzea erabaki duzue eta hor gelditu da proposamena. Eta, era berean, barneratu dituzuen proiektu berri guztiak, batzordetan informatu dira, bai, baina soilik informatuak. Orduan ez daukagu inongo aukerarik proposamenak egiteko. Kreditu aldaketa honetan abstenitu egingo gara, ez daukagu inongo arazorik proposatutakoak egiteko, baina bai aurrera eramateko egiteko moduetan. Hurrengorako bi proposamen, udalak herritarrekin hartutako konpromiso horiei kasu egin, ez muzin. Eta, guk, EHBilduk, herritarrak ordezkatzeko dugun honetan, foro horietan ekarpenak eta hobekuntzak egiteko aukera eskaintzea, azkenean, elkarrekin gauzak hobeto egingo ditugulako.”

- ... Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV): “Alde batetik, uste dut ni baino hobeto dakizula, urte gehiago eman dituzulako hemen, diru sarrerak mugatzen gaituztela gehienbat aurrekontuak egiteko garaian. Diru sarrerak eta gastuak berdinak izan behar dutelako. Gerakinak garaia horietan ezin ditugu erabili eta kreditu aldaketetan erabiltzen dira diru sarrerak. Bestalde, Aurrekontuak onartu zirenean ere esan zenuen aurrekontuak inprobisatuak zirela. Aurrekontuak ez ziren inprobisatuak eta kreditu hauen atzetik lan pila dago, aurkezteko eta hemen daudenak garatzeko ere lan pila egin da. Bestalde, esaten duzu partehartzaileko prozesu batearen inguruan. Gu partehartzailearen alde gaude, partehartzea ezinbestekoa baita herrian egiten diren gauzak aurrera ateratzeko. Baina gauza bat arraroa egiten zait: guk galdetu genien, zuek egindako partehartze prozesuan horretan ikusteko, gero interesatuta baldin bageunden, hor partehartzea hartu zuenei zer eskatzen zen eta zer kezka zeuzkaten eta, guk, ezer ez dugu aurkitu. Ez dugu aurkitu ze proiektu diren zuek atera nahi zenituenak; ez dakigu ere ze irizpide erabili ziren proiektu horiek aukeratzeko, edo ez aukeratzeko besteak. Horien artean agertzen zen Bikogunearen proiektuaren obra baina ez dago inongo soporterik ordutik aurrera nola sustatu edo aurrera eman behar den. Hitz egin dugu hango sustatzaile batzuekin eta beraien iritzia da kudeatzeko Udaletxeak pertsona bat jartzea. Argi esateko, ikusten duguna da gogoia badagoela, lan bat ere badagoela, baina atzetik ez dagoela proiektu bat; egin zen martxan jarri, bai, baina inongo sustengorik gabe. Nola kudeatu behar zen, agian zuek garbi zeneukaten, baina guk ez dugu ezer aurkitu. Bestalde, esan duzu Berriz programa, Bizi Gune, Kale Nagusiko Tolosa Market Berdura plazara trasladatzeko. Tolosa Market sortu zen, kale Nagusian arazo bereziren bat zegoelako. Alde Zaharrean bizi garenok, eta zu ere alde zaharrekoa zara, badakigu garai hartan kale Nagusian zeuden arazoak. Horretarako plan berezi bat proiektatu zen kale Nagusirako, baina proiektu guztiak ezin dira trasladatu kale batetik bestera. Berdura plazan, nire kalean, ez dut uste Tolosa Market, kale Nagusian egin zena, Berdura plazara estrapolatzea posible denik. Guzti hau kusiko da Tolosa&Corekin batera. Azken batean, merkataritza eta ostalaritzaren sektoreetan daudenek beraiek, dakite inor baino hobeto dauden gabezi eta beharrak. Haiekin lanean ari gara, elkarrekin, eskutik joango gara hau garatzeko eta aterako dira proiektuak. Berriz proiektua ere aipatu zenuen, bertan behera geratu ote zen eta esan genuen 2016 urtean Gune Biziak aurrera jarraitzen duela, baina itxoin behar dugula. Berriz proiektua Eusko Jaurlaritzako programa bat da eta Gipuzkoako

Foru Aldundiak eta baita Gipuzkoako Ganbarak beraiek kudeatzen duelako guzti hau, dirulaguntzak ateratzen dituztenean martxan jarriko dugu. Hor badaude bost enpresak formatzen ari direnak. Gune biziaren inguruan, batzordea aipatu zitzaizun bezala, aurrera doa, Ikertalde taldea, ikerketa bat eta hortik ateratzen diren proiektuak ikusita erabakiko dugu, denon artean, zein den egokiena gaur egun Tolosaren beharrentzat. Guzti hau sektoarekin hitz egin da, adostuta. Bertan behera gelditu diren proiektuen artean, RC2n 37 mila sartzea proposatzen zenuten. Goroldirekin hitz eginda, aurreikusten zituzten 50.000 euro hori dena txukuntzeko. Gure asmoa da hori lehenbailehen berritzea eta ez genuen egokia ikusten diru hori gastatzea, jakin gabe hemendik gutxira hor zer egin behar den. Nafarroa etorbideko obraren inguruan, proiektua eskatuta dago. Gure asmoa da datorren urtean hastea. Ez dakit erantzunak eman ditudan edo gehiegi luzatu naizen. "

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *"Ulertu dizut, baina planteamendu azkenean da: goazen guzti hau elkarrekin lantzea. Eta hori diot, partehartzea ez soilik kalera begira, baita udal barrenean. Maiatzaren 11n, proposamen hau helarazi zitzaizunean, ez zen gaizki egongo esatea: "elkartu gaitezen", adostea eta begiratzea zer sartu edo ez. Obrei dagokionez ere, obra batzordean azaldu zer egingo den eta barneratu. Eta kitto. Uste dut hautetsik bagaudela, nahiko pisu badaukagula, guzti hauek elkarrekin hitz egiteko. Ez dut esaten kreditu aldaketak gaizki dagoenik edo ez. Eta era berean, ez omen duzue aurkitu inolako sostengurik partehartze prozesuarena. Ba bertatik bertara gaude, elkarrekin hitz egin dezakegu nondik nora eman zer, zer gauzatu zen eta zer ez, eta zergatik. Besterik gabe."*

... Alkatea: *"Aipatu nahi nuke gai honen inguruan; gaurko kreditu aldaketa garrantzi handikoa izango delako etorkizunean, Tolosako herrian hartu beharreko erabakietan eta Udalaren oinarriak ezartzeko garaian, udalak berezkoa duen ohiko inertzia eta dinamika aurrera egiteaz gain, etorkizunean oinarritzakoak izan litezkeen proiektuen azterketak onartzen direlako kreditu modifikazio honetan. Gerora begira garatuko diren proiektuen aurrekariak lantzen gabiltza momentu honetan. Arloka aipatuko ditut esanguratsuenak: garapen ekonomikoari dagokionez, Oriaburu egoitza egokitzeko diru partida onartzen da kreditu modifikazioetan, non dagoeneko badakizue merkataritza sailaren egoitza han dagoela. Gainera, garapeneko ekonomikorako eta enpleguetako esperientzi bat abian jarri nahi dugu han eta horretarako egoitzaren egokitzapenerako onartuko dugu gaur diru partida. Bertan Tolosaldea Garatzenaren lankidetzarekin co-workingeko proiektua bat abian jarriko dugu, ekintzaileari leku bat eskainiz bere enpresa martxan jarri dezan. Guretzat oso garrantzizkoa da lanbide ezberdinak abian jarri nahi dituztenei baliabideen eskeintza hori bideratzea. Enpleguaren sustapena oso garrantzizkoa da guretzat eta hori guztia Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean egin nahi dugu. Nafarroa etorbidea eraberritzeko proiektua egingo dugu aurten eta honek ahalbideratuko du datorren urtean kalearen garapen ekonomiko eta soziala indartzea 2012 urteko PERCOan azpimarratzen zen Zerkausiaren eraberritzearen ondoren, Oria ibaiak Tolosan duen ibilbidearen berreskuratze sozial eta ekonomikoa zela aurrera begirako proiektu estrategikoa. Eta proiektua hau egiteko diru partida gaur onartzen dugu baita ere kreditu aldaketan. Tolosarrok ezin gara egon ibaiari bizkara emanaz. Udalerrri gutxi dute guk daukagun aukera ibai gehiago erabiltzeko. Hori nahi dugu aztertu, nola berrindartu Oria ibaiaren erabilera, erabilera soziala, ekonomikoa, kulturala eta ibai kirolarena. Hau guztia, herri eragilearen partaidetzaren bidez burutuko da. Gainera, gure enpresa ehuna babesteko azterketa egingo dugu, Udalaren diren eskumenak gure herriko garapen ekonomikoaren mesedetan. Gizarte politikaren inguruan, Tolosako probeziaren inguruko diagnostikoa egiteko diru partida ere kreditu modifikazio honetan onartzen da. Eta baita ere Janari Bankua jarduna babesteko diru partida bat. Gainera, herritarren bizikidetzaz jorratzeko Gogora institutuak Tolosan egindako erakusketa babesten du Udal honek. Kulturari dagokionez, aipatu behar da Ferialekuan erraldoien konpartsak urteetan eskatzen*

ari zen espazioa habilitatuko dela bere jarduna egoki burutu ahal izateko. Gure ustez, aspaldidanik merezi duen lekua da eta espero dugu elkarte horren ekimenez lortuko dela erraldoien konpartsen gizarteratze ahalik eta indartsuagoa. Beste esparru batean, AVIAMAK Tolosan bilera egin du. Hori ere aurreikusia dago kreditu modifikazioan eta, bide batez, AVIAMAKo Batzar Orokorra egiteaz gain, baita egin da UNIMAKo kongresuan, baita ere EMYAren ospakizuna. Aprobetxatzen dut zoriontzeko TOPICeko talde osoa, bereziki, aurten egiten ari den lan gehigarri horrengatik. Herri azpiegiturari dagokionez, azpimarratu nahi nuke Bidebieta auzoan, Izaskun auzoan eta Bizkai kalean baita ere auzotarrekin hitz egin ondoren, iresgarritasuna bermatzeko burutuko diren obrak. Baita ere Paper Eskolako urbanizazioa, aspaldidanik egiteke zegoena, eta orain iritsi da garaia honi ere aurre egiteko. Zer esanik ez, Gazteluko arkuarekin. Urteetan mantentze lanak egin dira, horrela mantendu da Gazteluko arku, baina kreditu modifikazio honetan onartzen da partida bat Gazteluko arku hori egoki eraberritzeko. Eta Tolosarron eta auzotarren bizikidetzeta eta kultura sustapenerako proiektuak garatzeari dagokionez, Berazubiko auzotarren egoitza aipatuko nuke. Horretarako auzoan lokal bat egokituko da premi hauei aurre egiteko. Bestalde, aipatuko nuke ere, Zezen plazaren segurtasun plana betetzeko lehenengo obrak egiteko diru partida onartzen dela. Horretaz gain, Zezen plazaren erabilera sustatzeko ere azterketa egiteko beste diru partida bat gaur onartzen da eta honek, etorkizunean, ziur naiz, eragina izango duela. Zezen plazaren erabilera soziala indartu nahi dugu eta horretarako ikerketa bat burutuko da, baloratu ahal izateko zer nolako erabilera desberdinak burutu litezkeen Zezen plaza estaliko bagenu. Lanketa hau egiteko ere herritarren partaidetzaren bidez burutuko da. Hauek dira gaur onartutako diru partidekin bultzatuko ditugun arloak: garapen ekonomikoa, gizarte politikak, kultura, azpiegiturak eta zerbitzuak. Kreditu aldaketa hau gaur hona aurkezteko lan asko egin da. Begoñak ere aipatu du eta jabetzen naiz gaur aurreikusten ditugun proiektu guzti horiek aurrera eramateko etorkizunean ere lan handia egin beharko dugula, bai gobernua eta baita ere oposizioak, eta noski teknikariek. Baina uste dut beharrezkoa dela tentsio hori mantentzea eta proiektu berri eta azterketen karpeta beteta eduki behar dela, aukerak sortzen direnean, aurreikuspenek ondo eginda egon behar dutelako. Modu guztietara, gaur onartuko dugun zerrenda garrantzitsua bada ere, baditugu beste proiektu batzuk ere lantzen ari garenak eta osoko bilkura honetara aurkeztuko ditugunak erabat landuta ditugunean. Beraz, martxan gaude eta, bide batez, eskertu nahi dut bereziki, bakoitzak bere alorrean, gaur kreditu modifikazio hau onartzeko, bai tekniko bai arduradun politikoei burutu duzuen lan guztia”.

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Entzun dut, Begoña, Nafarroa etorbideko proiektua onartua izan dela. Lorek esan duen bezala, Nafarroako etorbidekoa ulertu nahi nuke ez duzuela onartu, oraindik batzordetik pasa ez delako. Hala ere, ez ginateke harrizko. Azken boladan, eta hau bai da argi utzi nahiko genukeena, nahiz eta alkateak oso ponpo agertu duen, eta berriro diot, gu egiten ari diren gauzen kontra ez gaude baina bai formek asko larritzen gaituzte. Jada onartutzat, zure hitzetan eman duzun hori, oraindik batzordetik pasa ez den obra, ezagutzen ez dugun proiektu hori! Legealdi honetan batzordeak bilakatu dira diktaminatzeko espazio, hau da, rodilloa pasatzeko gune. Eta hau diot, askotan eskatu dugulako, bai gobernantzan, bai obretan, bai bestelako proiektuak jarri direnean, eztabaidatu nahi dugula, ikusi nahi dugula, ia 2.400.000 €ko kreditu aldaketa bat eginda da, non diktaminatu den aurkeztu den batzorde berean, bakar batean obrak ikusten ditugula, pliegoak aurkezten diren eta diktaminatzen diren momentu horretan bertan. Ez dago eztabaida, ez dago ikuspuntu desberdin edo berdinen inguruko hausnarketarik. Ez dago, korrika eta presaka onartzen dituzuelako eta izaten ari direlako batzorde guztiak non herritarrak, non telebista ez dagoen, aurrera egiteko forma bat. Ez zaigu iruditzen formatu egokia denik. Aurreko legealdian, denbora eskatzen zenean, denbora ematen zen pentsatzeko eta hurrengo batzordera arte uzten zen diktaminatu gabe. Oraingo honetan presak, bat bestearen atzetik omen dator, eta ondorioz, behin eta berriz esaten zaigu, hau*

aurrera doa. Ez dakit, ulertu nahi dut Nafarroa etorbidea ez dela onartu, ez delako diktaminatu, legez, eta esan nahi du batzordetik pasa behar duela. Eta ez nuke nahi, ostiraleko deialdian dagoelako Nafarroa etorbideko proiektua , iritsi eta ostiral bertan diktaminatzea, orain arte proiektu askotan egin zaigun bezala. Beraz, hitzak oso ondo, baina barrura begirako lanean eskatuko genuke konsiderazio minimo bat, eta batzorde bakar hauetan ez dadila diktaminatu, baldin eta denbora eskatzen baldin badugu; sarri eskatzen dugu eta ez zaigu kasurik egiten. Orduan ikusiko dugu ostiralean zer dagoen, ikusi nahiko nuke ez dela zuzenean diktaminatuko.”

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Atentzioa deitu dit entzundakoan erraldoiak azken urteetan obra batzuk eskatzen ari zirela eta. Ni kultura zinegotzi izan naizen horretan ez dute eskatu horrelako obrarik. Eta jada, Ibai dioen kontutan, nik kultura batzordean, proiektuari buruz galdezka aritu naizenean, eta bideratzen zidaten obra batzordera. Ez da egon inongo momentuetan Ferialekuari buruz eztabaida, horren erabileraren inguruan, kultura taldeekin irekia.”*

... Alkatea: *“Nafarroa etorbideko obra ez dago oraindik onartuta. Zuek planteatzen duzue, gainera, egitea urte ezberdinetako aurreikuspen bat Nafarroa etorbideari aurre egiteko. Kontua da Nafarroa etorbideko obra egiteko derrigorrean urte naturalean egin behar dela. Obra hasi behar da Iñauteri ondoren eta abendurako bukatu, merkatarien esanetan. Aurreikuspena da, eta proiektua dagokion batzordean planteatuko da, eta ikusteko aukera izango duzue, orain arte izan duzuen bezala, eta batzorde guztietan eztabaidatzeko izan duzuen bezala. Nik ñarbardura txiki bat egin nahi nuke Ogasun batzordeko aktan, aurrean daukat, nik bertan ez dut parte hartzen, baina aurkezten denean kreditu modifikazioa, aurretik hirigintza eta dagokien beste batzordeetan ere banakako proiektu guztiak aurkeztu dira banan-banan eta iritzia emateko aukera izan duzue, guztietan. Kreditu modifikazioa aurkeztu denean. Ogas99un batzordean, hemen aktan jarrita dago, EHBilduk plenoan emango du bere iritzia. Orduan, zuek ez badituzue batzordeetan iritzia eman nahi, nekez kolaboratuko dugu elkarrekin. Orduan kolaborazioaren proposamenari heltzen diogu, baina zuek ere postura horretan jarri behar zarete. Beraz bozketara pasako gara.”*

Tolosako Udalaren 2016eko Aurrekontuaren barnean kreditu transferentzien, gaikuntzaren eta kreditu gehigarrien bidez izapidetzen den espedientea tramitatzen ari da.

Kreditu aldaketarako proposamena hau da:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.05.31

AZALPENA	PARTIDA			Hasierako	Aldatutako	Kreditu Aldaketa		Aldatutako
	Org	Eko	Fun	Aurrekontua 2016	Aurrekontua 2/2016 esp.	Gehi	Jeitsi	Aurrekontua 2/2016 esp.
KAP.1 PERTSONAL GASTUAK								
Beste pertsonala. Zehaztugabeak	0200	141.00	92900	0,00	185.000,00	185.000,00	0,00	185.000,00
Kap.1:				0,00	185.000,00	185.000,00	0,00	185.000,00
KAP.2 ONDASUN ARRUTEN GASTUAK								
Azpiegituren mantenimendua. Bide publikoak	0700	210.01	15320	195.027,00	231.527,00	36.500,00	0,00	36.500,00
Eraikin publikoen mantenimendua	0700	211.01	92031	45.000,00	90.000,00	45.000,00	0,00	45.000,00
Hornidurak. Hondakinen bilketa	0700	221.99	16210	50.000,00	60.000,00	10.000,00	0,00	10.000,00
Juridikoak. Hirigintza	0600	226.04	15110	30.000,00	11.500,00	0,00	18.500,00	-18.500,00
Jarduerak. Ingurumena	1100	226.06	17200	56.000,00	52.000,00	0,00	4.000,00	-4.000,00
Jarduerak. Garapen ekonomikoa	1100	226.06	43000	1.000,00	18.000,00	17.000,00	0,00	17.000,00
Jarduerak. Berdintasuna	1400	226.06	23160	99.600,00	102.600,00	3.000,00	0,00	3.000,00
Beste gastuak. Gobernu organoak	0100	226.99	91200	18.000,00	25.000,00	7.000,00	0,00	7.000,00
Kontratuak. Gizarte zerbitzuak	0300	227.04	23100	220.400,00	242.400,00	22.000,00	0,00	22.000,00
Kontratuak. Administrazio orokorra	0300	227.07	92000	20.000,00	31.000,00	11.000,00	0,00	11.000,00
Kontratuak. Hirigintza	0600	227.07	15110	80.000,00	98.500,00	18.500,00	0,00	18.500,00
Kontratuak. Obratuko administrazio orokorra	0700	227.07	15300	3.000,00	81.000,00	78.000,00	0,00	78.000,00
Kontratuak. Informatika	0300	227.11	92020	121.600,00	130.400,00	8.800,00	0,00	8.800,00
Kap.2:				939.627,00	1.173.927,00	256.800,00	22.500,00	234.300,00
KAP.4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK								
Dirulaguntzak. Gizarte zerbitzuak	0500	481.01	23100	171.000,00	178.000,00	7.000,00	0,00	7.000,00
Dirulaguntzak. Jaiak	0800	481.01	33800	50.497,00	50.997,00	500,00	0,00	500,00
Dirulaguntzak. Ingurumena	1100	481.01	17200	18.700,00	22.700,00	4.000,00	0,00	4.000,00
Kap. 4 :				240.197,00	251.697,00	11.500,00	0,00	11.500,00
KAP.6 INBERTSIOAK								
Bidebieta eremuko azpiegituren hobekuntza	0700	601.42	15320	800.000,00	1.436.000,00	636.000,00	0,00	636.000,00
Paper eskolako igoera	0700	601.45	15320	0,00	435.000,00	435.000,00	0,00	435.000,00
Hainbat eraikinetako obrak	0700	622.02	92031	0,00	279.000,00	279.000,00	0,00	279.000,00
Zezen plazako obrak	0700	622.02	92032	0,00	184.500,00	184.500,00	0,00	184.500,00
Ferialeko obrak	0700	622.02	92033	0,00	120.000,00	120.000,00	0,00	120.000,00
Samaniegoko obrak	0900	622.02	32320	0,00	65.000,00	65.000,00	0,00	65.000,00
Makineria. Bide publikoak	0700	623.01	15320	0,00	2.000,00	2.000,00	0,00	2.000,00
Argi publikoa	0700	623.05	16500	20.000,00	65.000,00	45.000,00	0,00	45.000,00
Hondakinen kudeaketarako ekipamendua	0700	625.99	16210	0,00	60.000,00	60.000,00	0,00	60.000,00
Bestelako inbertsioak. Bide publikoak	0700	629.01	15320	0,00	94.000,00	94.000,00	0,00	94.000,00
Bestelako inbertsioak. Eraikin publikoak	0700	629.01	92031	0,00	22.000,00	22.000,00	0,00	22.000,00
Kap. 6 :				820.000,00	2.762.500,00	1.942.500,00	0,00	1.942.500,00
KAP.7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK								
Kap.7 :				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA :				1.999.824,00	4.373.124,00	2.395.800,00	22.500,00	2.373.300,00

Hau dena finantzatzen duten baliabideak hauek dira, kapituluka:

1. GASTU IGOERAREN PROPOSAMENA			
Gastu igoeraren banaketa kapituluka hau da:			
1.1 Gastu arrunta			
Kap. 1 Pertsonal gastuak	185.000,00		
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	256.800,00		
Kap. 4 Transferentzi arruntak	11.500,00	453.300,00	
Kap. 3 Finantza gastuak		0,00	
Kap. 9 Finantza pasiboak (maileguen amortizazioa)		0,00	453.300,00
1.2 Inbertsioa			
Kap. 6 Inbertsio errealak		1.942.500,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		0,00	
Kap. 8 Finantza aktiboak		0,00	1.942.500,00
GASTU IGOERA PROPOSAMENA GUZTIRA:			2.395.800,00
2. FINANTZIAZIOA			
2.1 Kreditu transferentzien bidez finantziatuta			
Gastu arrunta :			
Kap. 1 Pertsonal gastuak	0,00		
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	22.500,00		
Kap. 4 Transferentzi arruntak	0,00	22.500,00	
Kap. 3 Finantza gastuak (maileguen interesak)		0,00	22.500,00
Inbertsioa			
Kap. 6 Inbertsio errealak		0,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		0,00	0,00
Kreditu tansferentzien bidez finantziatuta guztira:			22.500,00
2.2 Sarrera berriak edo handiagoak izateagatik kreditu gaikuntzaren bidez finantziatuta			
Kap. 3 Tasak eta beste sarrerak			
Kap. 4 Transferentzi arruntak			
Kap. 5 Ondare sarrerak		0,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		36.782,00	36.782,00
2.3 Diruzaintza gerakinaren bidez finantziatuta			
Kap. 8 Finantza aktiboak			2.336.518,00
FINANTZIAZIOA GUZTIRA:			2.395.800,00
3. LABURPENA			
Gastu igoera guztira			2.395.800,00
Finantziazioa :			
- Kreditu transferentzia		22.500,00	
- Kreditu gaikuntza		36.782,00	
- Diruzaintzako gerakinarekin kreditu gehigarriak		2.336.518,00	2.395.800,00

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.05.31

2016eko Sarrera eta Gastuen Aurrekontuen bilakaera, 2/2016 zenbakidun Kreditu Aldaketarako espedientea barne, ondorengo koadroetan laburtzen da kapituluka:

AZALPENA	Hasierako Aurrekontua 2016	Kreditu Aldaketa 1/2016	Kreditu Aldaketa 2/2016	Behin-betiko Aurrekontua 2016
1. Pertsonal gastuak	8.150.464,00		185.000,00	8.335.464,00
2. Ondasunen erosketa eta zerbitzuak	8.604.134,00	451.422,86	234.300,00	9.289.856,86
3. Finantza gastuak	164.456,00			164.456,00
4. Transferentzi arruntak	3.957.751,00	313.342,71	11.500,00	4.282.593,71
6. Inbertsio errealak	2.425.000,00	2.296.369,02	1.942.500,00	6.663.869,02
7. Kapital transferentziak	189.142,00	141.000,00		330.142,00
8. Aktibo finantzarioak	0,00			0,00
9. Pasibo finantzarioak	971.053,00			971.053,00
GASTUAK GUZTIRA	24.462.000,00	3.202.134,59	2.373.300,00	30.037.434,59

AZALPENA	Hasierako Aurrekontua 2016	Kreditu Aldaketa 1/2016	Kreditu Aldaketa 2/2016	Behin-betiko Aurrekontua 2016
1. Zuzeneko zergak	5.630.083,00			5.630.083,00
2. Zeharkako zergak	737.000,00			737.000,00
3. Tasak eta bestelako sarrerak	4.084.565,00			4.084.565,00
4. Transferentzi arruntak	13.164.582,00	75.989,37		13.240.571,37
5. Ondasun sarrerak	739.770,00			739.770,00
6. Inbertsioen besterenganak	100.000,00			100.000,00
7. Kapital transferentziak	6.000,00	484.991,01	36.782,00	527.773,01
8. Aktibo finantzarioak	0,00	2.641.154,21	2.336.518,00	4.977.672,21
9. Pasibo finantzarioak	0,00			0,00
SARRERAK GUZTIRA	24.462.000,00	3.202.134,59	2.373.300,00	30.037.434,59

Beraz, 2/2016 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekursoak aztertu ondoren.

Kontuan harturik, gastuaren premiazko beharra nahikoa egiaztatzen dela, hala nola igoera horiek finantzatzen dituzten errekursoen efektibotasuna, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuen kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz kontuhartzaileak jaulki duen txostena, non agerian dagoen espedientearen instrukzioa indarrean dagoen legezko arautegiarekin bat datorrela eta Ogasun batzordeak 2016ko maiatzaren 26an jaulkitako diktamena, Udaltzatzen, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE(1) alderdien

aldeko botoekin eta EHBILDU (6) alderdiaren abstentzioarekin, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.-Tolosako Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 2/2016 kreditu aldaketa haseraz onartzea.

Bigarrena.-Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

7. 1/2016 eta 2/2016 Kreditu aldaketen espedienteei buruzko Kontuhartzaile txostenaren berri ematea.

7. Comunicar el informe de Intervención relativo a las Modificaciones de Crédito 1/2016 y 2/2016.

Kontuhartzaileak 1/2016 eta 2/2016 Kreditu aldaketen espedienteei buruz egindako txostenen berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

- "1/2016 kreditu aldaketa

Administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2015eko kreditu gerakinak 2016ra txertatu ondoren (1/2016 kreditu aldaketa) betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua, baina ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelari ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek ere plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan gastu araua bete ahal izateko.

Dena den, 13/2014 Foru Arauaren 2. artikuluan 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan egindako aldaketari esker, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzarrari, kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak

betetzen badituzte:

- a) aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea
- b) urteko zor publikoko helburua betetzea
- c) urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulaten den bi entitateetan kasuan.

Bestalde, 2016ko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.

Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udaltzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udalaren 1/2016 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak 1.609.901,21 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Hasierako aurrekontuak 1.031.253,00 euroko superabita zuen. Beraz, 1/2016 kreditu aldaketarako espedienteak 2.641.154,21 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2016	Aldaketa 1/2016
Sarrerak Kap.1 - 7	29.192.100,00	29.708.380,38
Gastuak Kap. 1 - 7	28.160.847,00	31.318.281,59
Superabita / Defizita (Finantzaketa ahalmena)	1.031.253,00	-1.609.901,21

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 1/2016 kreditu aldaketaren espedientea finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 2.641.154,21 euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak hasierako 1.031.253,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezk Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Gastuaren araua

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 8,74 da, 1/2016 kreditu aldaketarako espedientearen ondoren.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 1/2016
2015eko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	28.069.594,22
2015eko interesak	-124.297,78
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2015ean	-188.047,33
Finantzaketa lotua duten gastuak 2015ean	-546.961,72
2015eko gastu konputagarria	27.210.287,39
Gastu ez finantzarioa (1-7 kap.) 2016	31.318.281,59
Interesak 2016	-170.991,00
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2016an	0,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-958.047,00
Finantzaketa lotua duen gastuak 2016an	-599.885,54
Araudian egindako aldaketen eragina dirubilketa	0,00
2016eko gastu konputagarria	29.589.358,05
Gastu konputagarrien bariazioa	8,74%
HELBURUA	1,80%

Kasu honetan ere, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezk Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da, hain zuzen 3.934.728,05 eurokoa, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzan den bi entitateetan kasuan: Udalaren kasuan 8.287.262,62 euro eta lurreamendi egoitzan 296.721,24 euro.

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2016ko zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan zehazten dira datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 1/2016
ZOR BIZIA 2016/12/31an	8.488.615
SARRERA ARRUNTAK. 2015eko likidazioa	29.475.215
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	28,80%
MUGA	80,00%

Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hau da zor biziaren banaketa:

-Udala	8.374.099,00
-Udala. 2016ko aurrekontuan aurreikusita	0,00
-Erretengibel Bankoa	51.617,00
-Erretengibel Kutxa	62.899,00
	8.488.615,00

2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea da.

Hirugarren baldintza

Administrazio izaera duten entitateen behin-betiko aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Dena den, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da, ondorengo taulan ikusten den moduan:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2016	Aldaketa 1/2016
Sarrerak Kap.1 - 7	29.192.100,00	29.708.380,38
Gastuak Kap. 1 - 7	28.160.847,00	31.318.281,59
Superabita / Defizita	1.031.253,00	-1.609.901,21
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.641.154,21
Finantzaketa ahalmena		1.031.253,00

Diruzaintza gerakinaren eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 1.031.253,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 1/2016 kreditu aldaketa, guztira, 3.202.134,59 eurokoa izan da. 560.980,38 euro kanpoko sarreren bidez finantzatu dira.

Gainontzeko 2.641.154,21 euro diruzaintza gerakinaren bidez finantzatu dira.

Txertatutako kredituen %92 inbertsioak eta kapital transferentziak dira. Seigarren kapituluan 2.296.369,02 euro dira eta zazpigarren kapituluan 141.000,00 euro.

Inbertsioen banaketa hau da:

	ZENBATEKOA
Informazio prozesuetarako ekipoak	31.660,89
Plan orokorraren berrikuspen partziala	41.999,84
Larramendiko biribilgunea	114.183,04
Lapurdi plazako zoladura	58.438,41
Bedaioko urbanizazio obrak	185.301,59
Elosegi parkea	255.916,18
Hainbat eraikinetako obrak	259.500,89
Kondeaneko aldapako etxebizitzak	1.165.000,00
Landa auzotako inbertsioak	24.981,28
Ibilgailuak	34.999,25
Hodakinen kudeaketarako ekipamendua	99.193,26
Bizikletak gordetzeko obra Korreo kalean	25.194,39
GUZTIRA	2.296.369,02

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorrak eta ez dute administrazio izaera duten entitateen finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan zen 2015eko aurrekontuaren likidazioan (3.934.728,05 euro), kontuak bateratu ondoren. Eta 2016ko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da. Hain zuzen ere, 1.844.366,00 euro, behin-betiko aurrekontuaren datuen arabera,

Zenbateko hau sarrera arrunten %6,3a da. Ratio hau gutxienez %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2016ko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 1/2016 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua betetzen ez baditu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen.

- 2/2016 kreditu aldaketa

Administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2/2016 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua, baina ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelari ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek ere plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan gastu araua bete ahal izateko.

Dena den, 13/2014 Foru Arauaren 2. artikuluan 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan egindako aldaketari esker, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzari, kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- a) aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea*
- b) urteko zor publikoko helburua betetzea*
- c) urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.*

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatu den bi entitateetan kasuan.

Bestalde, 2016ko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.

Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udalaren 2/2016 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak 3.946.419,21 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2/2016 kreditu aldaketa egin aurretik behin-betiko aurrekontuak 1.609.901,21 euroko defizitaa zuen. Beraz, 2/2016 kreditu aldaketarako espedienteak 2.336.518,00 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2016	Aldaketa 1/2016	Aldaketa 2/2016
Sarrerak Kap.1 - 7	29.192.100,00	29.708.380,38	29.745.162,38
Gastuak Kap. 1 - 7	28.160.847,00	31.318.281,59	33.691.581,59
Superabita / Defizita	1.031.253,00	-1.609.901,21	-3.946.419,21
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.641.154,21	4.977.672,21
Finantzaketa ahalmena		1.031.253,00	1.031.253,00

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 2/2016 kreditu aldaketaren espedienteak finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 2.336.518,00 euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak hasierako 1.031.253,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeiz Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Gastuaren araua

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 17,3 da, 2/2016 kreditu aldaketarako espedientearen ondoren.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.05.31

GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2/2016
2015eko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	28.069.594,22
2015eko interesak	-124.297,78
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2015ean	-188.047,33
Finantzaketa lotua duten gastuak 2015ean	-546.961,72
2015eko gastu konputagarria	27.210.287,39
Gastu ez finantzarioa (1-7 kap.) 2016	33.691.581,59
Interesak 2016	-170.991,00
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2016an	0,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-958.047,00
Finantzaketa lotua duen gastuak 2016an	-645.467,00
Araudian egindako aldaketan eragina dirubilketa	0,00
2016eko gastu konputagarria	31.917.076,59
Gastu konputagarrien bariazioa	17,30%
HELBURUA	1,80%

Kasu honetan ere, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari Udalbatzaren komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da, hain zuzen 3.934.728,05 eurokoa, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzen den bi entitateetan kasuan: Udalaren kasuan 8.287.262,62 euro eta lurreamendi egoitzan 296.721,24 euro.

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2016ko zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan zehazten dira datuak:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.05.31

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2/2016
ZOR BIZIA 2016/12/31an	8.488.615
SARRERA ARRUNTAK. 2015eko likidazioa	29.475.215
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	28,80%
MUGA	80,00%

Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hau da zor biziaren banaketa:

-Udala	8.374.099,00
-Udala. 2016ko aurrekontuan aurreikusita	0,00
-Erretengibel Bankoa	51.617,00
-Erretengibel Kutxa	62.899,00
	8.488.615,00

2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea da.

Hirugarren baldintza

Administrazio izaera duten entitateen behin-betiko aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Dena den, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da, lehen adierazi dugun moduan:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.05.31

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2016	Aldaketa 1/2016	Aldaketa 2/2016
Sarrerak Kap.1 - 7	29.192.100,00	29.708.380,38	29.745.162,38
Gastuak Kap. 1 - 7	28.160.847,00	31.318.281,59	33.691.581,59
Superabita / Defizita	1.031.253,00	-1.609.901,21	-3.946.419,21
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.641.154,21	4.977.672,21
Finantzaketa ahalmena		1.031.253,00	1.031.253,00

Diruzaintza gerakinaren eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 1.031.253,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 2/2016 kreditu aldaketa, guztira, 2.395.800,00 eurokoa izan da. 22.500,00 euro kreditu transferentzien bidez finantzatu dira eta 36.782,00 euro kanpoko sarreren bidez.

Gainontzeko 2.336.518,00 euro diruzaintza gerakinaren bidez finantzatu dira.

Kreditu aldaketan, 1.942.500,00 euro inbertsioak egiteko erabiliko dira, hau da proposatutako gastuaren %81a.

Inbertsioen banaketa hau da:

AZALPENA	PARTIDA			ZENBATEKOA
Bidebieta eremuko azpiegituren hobekuntza	0700	601.42	15320	636.000,00
Paper eskolako igoera	0700	601.45	15320	435.000,00
Hainbat eraikinetako obrak	0700	622.02	92031	279.000,00
Zezen plazako obrak	0700	622.02	92032	184.500,00
Ferialeko obrak	0700	622.02	92033	120.000,00
Samaniegoko obrak	0900	622.02	32320	65.000,00
Makineria. Bide publikoak	0700	623.01	15320	2.000,00
Argi publikoa	0700	623.05	16500	45.000,00
Hondakinen kudeaketarako ekipamendua	0700	625.99	16210	60.000,00
Bestelako inbertsioak. Bide publikoak	0700	629.01	15320	94.000,00
Bestelako inbertsioak. Eraikin publikoak	0700	629.01	92031	22.000,00
GUZTIRA :				1.942.500,00

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorrek eta ez dute administrazio izaera duten entitateen finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Beste 185.000,00 euro 2012ko aparteko ordainsarien zati bati aurre egiteko dira. Hau ere ez da aurrerantzean errepikatuko den gastu bat.

Bigarren kapituluko gastuei dagokienez, gehienak ez ohizko gastuak dira eta ez dira seguruenik aurrerantzean errepikatuko.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan zen 2015eko aurrekontuaren likidazioan (3.934.728,05 euro), kontuak bateratu ondoren. Eta 2016ko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da. Hain zuzen ere, 1.413.566,00 euro behin-betiko aurrekontuaren datuen arabera.

Zenbateko hau sarrera arrunten %4,9a da. Ratio hau gutxienez %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2016ko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 2/2016 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua betetzen ez baditu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen.”

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

8. Brigadako arduradunaren lanpostuko balorazioaren eta lanpostu zerrendaren aldaketaren onarpena.

8. Aprobación de la valoración del puesto de Responsable de la Brigada y modificación de la relación de puestos de trabajo.

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Martxoko osoko bilkuran aipatu bagenuen ere, badira 10 urte lanpostu baloraketa egin zela Udalean. Bertan manual bat adostu zen dinamikotasun horretan pendiente egon zitezkeen edo baloratzeko prozesua aurrera eramateko erabilgarri izango zen manuala eta egia da ez dela modu horretan gauzatzen ari. Batzordera etortzen dira lanpostu baloraketa proposamenak, banan bana, alkatetzak gustukoak dituen lanpostuen balorazioa edo ez dakit zer neurritan, txostenean horrela jartzen du, alkatetzan horrela eskatuta. Zalantza pixka sortzen duen arren, ikusita arrazoibidea baiezkoa emango diogu honi. Baina batzordean aipatu zen bezala, baloratzeko pendiente dauden lanpostu horien balorazioa ea egiten hasten garen eskatzen dut. Bestalde, jarraitu nahiko nuke pertsonaleko beste gai batekin, batez ere, nik gero galde-erreguetaraino ezin naizelako geratu. Kezkatuta gaude lurramendi Egoitzako zuzendaritzarekin gertatzen ari denarekin. Bere momentuan ere galdetu nuen, galdetu nion batzordeburuari, baina erantzuna argirik jaso ez nuenez, gaur hona ekartzea pentsatu dut. Azkenean, badakigu denok lurramendi egoitza zer den, zer lan suposatzen duen, ze garrantzitsua den zuzendaritza postua. Eta azken hilabeteetan ematen ari diren aldaketa guzti horiek eragin negatiboa du egoitzaren kudeaketa horretan. Gogoratze aldera, zuzendariak konfiantzazko kargua betetzera joan zen Aldundira; goizetik gauera, bat-batean; jakinarazi zeniguten Kontuhartzailtzako teknikaria pasatzen zutenela zuzendaritza postu hori betetzera. Batzordean esan nuen bezala, badirudi orain zurrumurruek daudela, txosten bat oinarri hartuz, lanpostutik kentzea erabaki duzuela. Ez dakigu eze; jaso dugun informazio bakarra izan da, maiatzaren 25an e-maila baten bitartez, esanez maiatzaren 18ko pertsonal batzordean, lurramendikoan, oinarri batzuk onartu dituzuela eta 20an, oraingoan, lurramendiko zuzendariak lanpostua uzten duela. Kezkatuta gaude: oinarriak onartu dituzte, oraingo lurramendiko zuzendariak lanpostuak uzten du; gelditzen gara zuzendari gabe. Honek guztiak egunero funtzionamenduan, lurramendin suposatzen duenarekin, guk behintzat, ez dakigu ezer. Are gehiago, orain, oinarriak irakurtzeko aukera izan dugun honetan, publiko egin direnean, kezkatuta gaude A mailako lanpostuetaz hitz egiten ari garenean, administrazioko mailako goreneko lanpostuetaz ari garenean, 6 hilabeteko probaldia jarri zaio aukeratua izango den hori, eta horren arabera epea bukatu aurretik zuzendaritza batzordeko lehendakariak, hau da alkateak, probaldian dagoen langilearen txosten bat egingo du, hori baloratzeko. Hor urrutik gelditzen da erabaki teknikoak, nik argibideak eskatuko nituzke batzordeak ez ditugulako izan.*

Alkatea: *“Estimatzen dizut preokupazioa, normala da eta hurrengo lurramendiko juntan, orain ekainean, sakonago hitz egingo dugu egoeraz eta nola aurre egin. Egia da, lurramendiko zuzendariak lanpostu eskeintza izan zuela egunetik gauera. Egia da, hori bete izan behar zela egunetik gauera. Horretarako Udaletxe honetan zegoen langile bat, kontuhartzailtza departamentuan, proposatu zela eta onartu zela. Hori bertako Juntan hitz egin zen eta baita ere bertako langileekin. Ni neu elkartu nintzen hurrengo egunean bertan. Egia da baita ere, pertsona honek beste lan eskaintza bat izan duela eta maiatzaren 20an badoala. Oinarriak onartu direnak suposatzen dut personal batzordetik pasa direla eta han ikusi dituzuela. Maiatzak 28tik ekainak 8rainoko epea dute aurkeztu nahi dutenak lanpostu horretara aurkezteko. Prozedura hori irauten bitartean, neu ari naiz hango langileagoarekin elkartzen egoerari aurre egiteko. Hitz egingo dugu lasaiago. Pentsatzen dut gai honekin bat egingo dugula, interesa berdina dugulako eta datorren Juntan, eta aurretik ere nahi izanez*

gero, elkartuko ginateke.”

- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Gonbitea hartzen dizut eta gustatuko litzaiguke gaietaz hitz egitea. Ez diguzuna argi uzten da, eta zurrumuruak hor egon badaude, badirudi nolabaiteko txosten negatibo bat egon ote daitekeen lehenago langile hori kanporatzeko, lanpostu horretatik kentzeko asmoa ote zenutenen. Atrebituko nintzateke esatera azkeneneko zuzendaritza batzorderako, hau da, apirilaren 20rako, hori bazenekitela. Horren inguruko argibideak, kezkatu gaude, bertako kide ezberdinekin hitz egiteko aukera izan dut, ikusi dut ibilbidea nolako izan den eta pixka bat horren inguruko argibideak nahi nituzke. Ez dut uste kontua hasten denik oinarriak hartzen ditugu eta listo, baizik eta askoz lehenagotik dator, oker ez banago. Batzordean galdetu nuen eta ez zitzaidan erantzun. Oinarriak onartzen diren foro horretan ez gaude, jada ikusi ditugu publikatuta, beraz, ez daukagu inongo aukerarik horren inguruan hitz egiteko. Kasu batzuetan eta aurreko legealdian, nahiz eta pertsonal batzordea lurramendin izan, zenbait gai ekartzen ziren hona, garrantzia zutenak, Personal batzordera, hor gaudelako ordezkaturik alderdi guztiak; ez da kasua izan, ez dugu izan fororik honetaz hitz egiteko. “*
- ... Idazkariak, baloraketa txostenari buruz ezer ez esateko eskatzen dio Alkateari eragindako langilearen oinarritzko eskubideak urratu daitezkeelako.
- ... Alkatea: *“Niri Idazkariak aholkatzen badit kontu hau plenoan esan beharrean beste leku baten kudeatzea hobea dela, kaso egingo diot. Zuk planteamendua egin duzun bezala ez dela izan, hori ere aurreratzen dizut.”*

Alkatetzak hala eskatuta, Obra eta zerbitzuetako Brigadako enkargatuaren lanpostuaren balorazioaren azterketa proposamena egiten da. Bertan, bere katalogoaren funtzioa ikusirik, non brigadako lanen antolaketa soilik agertzen den, hau berritzeko eta eguneratzeko proposamena egin da.

Aurrekariak ere kontuan izan behar dira, hau da, hasiera batean, 2008 urtean, orduko enkargatua jubilatuta zenean, bere lanak egiteko zerbitzu eginkizunetan izendatu zen egungo enkargatua, lanpostuak zituen funtzio eta baldintza ekonomiko berdinekin.

Ondoren, 2010 urtean, kontuan hartuta udalak antolatzen dituen orduz kanpo hainbat ekintzetan bere presentzia ezinbestekoa zela (feriak eta merkatuak, merkataritzako ekintzak, emanaldien antolaketa, zerkausiaren gainbegiratzea...), bere lan jardunagatiko dedikazioa % 20an jartzea erabaki zen.

Gaur egun, eta azken urteotan batez ere, bai bere funtzioak eta baita bere dedikazioa gero eta handiagoa da goran aipatu diren arlo guztietan. Horregatik, bere balorazio berraztertzea proposatu da, bere funtzioak udaleko atal desberdinetan gero eta garrantzi handiagoa hartu dutelako eta orduz kanpoko presentzia oraindik gehiago handitu delako. Horregatik, bere dedikazioa erabatekoa izanda, hau ere modu egoki batean konpentsatzea proposatu da, praktikan astean 7 egun eta egunean 24 ordu disponibilitatea baitu.

Lege aurreikuspenei dagokionez, 2016 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrek ezartzen

dute lanpostuen ordainsariak salbuespenezko egoera batean edota egokitzapen singular baterako egin daitezkeela soilik, lanpostuaren edukia aldatzen denean.

Honela, enkargatuaren lanpostuaren edukia egokitu eta Lanpostu Zerrendaren baldintzak aldatuko lirateke, eranskinean azaltzen den moduan.

Guzti honegatik, Kontutan izanik Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik.- Brigadako enkargatuaren funtzioak berregokitzea eta lanpostuaren balorazioa berrikustea, eranskinean azaltzen den eran.

Bigarrenik.- Lanpostu zerrenda aldatzea Brigadako enkargatuaren lanpostuan eta baldintza berriak onartzea, 2016ko urtarrilaren 1eko atzeraeragina aplikatuaz.

Lore Agirre Zipitria (EHBildu) irten egin da.

9. Udal ordezkariaren izendapena **Haurreskolak Partzuergoan.**

9.- Nombramiento del representante **municipal en el Consorcio** **Haurreskolak.**

Tolosako Udalak, 2008ko uztailaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki hauek hartu zituen besteak beste:

- *Onartzea Haurreskolak Partzuergoan sartzea, hiru urtetik beherako haurren eskolak eta haurrei zuzendutako asistentzi eta hezkuntza arreta gestionatzeko.*
- *Onartzea Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuak, esparru hitzarmena eta hitzarmenaren eranskina.*

Erabaki haren ondoren, aipatutako hitzarmena formalizatuta, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak, 2008ko uztailaren 22an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen:

- *Tolosako Udala Haurreskolak Partzuergoan sartzea.*

Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuetako 10. artikulua arabera, partzuergoa ordezkatu eta administratuko duten organoak hauexek dira:

- *Batzar Nagusia*
- *Zuzendaritza Batzordeak*
- *Gerentea*

- *Lehendakaria*
- *Lehendakariordea*

Estatutuetakako 11. artikulua, berriz, hau dio, besteak beste:

Batzar Nagusian Partzuergoan barne hartutako erakunde guztiak egongo dira ordezkaturak.

Udalerrri bakoitzak bere ordezkaria izango du Batzar Nagusian eta ondoko botoak izango ditu:

10.001 biztanletik 25.000ra bitarteko udalerrriak: 2 boto
Partzuergoan barne hartutako udalek korporazioko kideen artean izendatu eta kargutik kenduko dituzte beren ordezkariak. Partzuergoan ordezkarien iraunaldiak bat etorri beharko du toki-korporazioetan duten agintaldiarekin.

Beraz, kontuan hartuz Partzuergoaren Estatutuek xedatua eta Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak 2016ko maiatzaren 26ko diktamena, Udaltzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik: Tolosako Udalaren ordezkaria Haurreskolak Partzuergoan honako hauek izendatzea:

Titularra: Olatz Peon Ormazabal
Ordezkoa: Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Bigarren: Erabaki honen berri Haurreskolak Partzuergoari ematea.

10. EHBildu alderdiak Tolosaldea osasungintza ereduaz aurkeztutako mozioa.

10. Moción presentada por EHBildu relativa al modelo de sanidad de Tolosaldea.

Idazkariak EHBildu alderdiak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Hitzez hitz honela dio:

“2011tik Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren hitzarmena bat eduki du Inviza ospitale pribatuarekin (Asuncion klinika aurrerantzean) Tolosaldeko ospitale erreferentziala izateko. 29atena ur Jaurlaritzatik informazio gehiegi ez helarazi, behin baino gehiagotan salatu dugu osasun arreta izaten ari den gainbehera etengabea.

Honetaz gain, bost urte luze hauetan, ezagunak izan dira Asuncion Klinikak historikoki duen lau milioi euroko zorra ez ordaintzeko egindako trikimailu mordoa. Hemen ere argi eta garbi utzi dugu gure osasun arreta erdigunean egon behar duela eta ez irabazi ekonomikoen menpe.

2016ko azaroan Jaurlaritzak Asuncion klinikarekin duen hitzarmena bertan behera geratzen da. Momentu historiko 29atena urrean gaude. Tolosaldeko herritar eta eragilekok sekulako aukera dugu eskualdean nahi dugun osasun arreta erabakitzeko. Urte luzez eskatu dugu

eskualdeko eragilez osatutako mahai baten osaketa, eta Jaurlaritzak behin eta berriz atearak itxi dizkio aukera honi.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Tolosaldeko herritar eta eragileon bizkar, aldeakartasunez, osasun sistema pribatua erdigunean duen sistema bat inposatu nahi digu berriz ere. Hasieratik gure ezezkoa adierazi genion aukera honi eta orain, bost urte geroago, egoera hau luzatu nahiko dute Lakuatik.

Horregatik, ondoko eskaera hau egin nahi dio Tolosako udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

1. Mahai gainean jar ditzala bost urtez indarrean egon den konbenioaren balorazio tekniko zein ekonomikoa xehetasun osoz balorazio osatu bat egiteko aukera izateko.
2. Ireki dezala prozesu partehartzailea bat eskualdeko udal eta herri eragileekin denon artean aurtengo azarotik aurrera jaso nahi dugun osasun arreta denon artean erabakitzeko."

...//..

Partehartzeak amaitu ondoren, mozioa bozketara jarri da eta **EZ DA ONARTU**. Emaitza hau izan da: EAJ-PNV alderdiko zinegotziak (9) aurkako botoa, PSE-EE alderdiko zinegotzia (1) abstentzioa eta EHBildu alderdiko zinegotziak aldeko (5) botoa.

Partehartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): "Gai honen konpetentzia Udalaren eskuan ez dago eta bai Eusko Jaurlaritzan eskuetan, beraz eztabaidan honetan ez naiz sartuko eta abstentzioa bozkatuko dut."

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): "Lehenik eta behin, konpetentzia izan edo ez izan zuzen zuzenean eragiten digu. Zuzen zuzenean eragiten digu gure osasuna eta guri eskaintzen zaigun zerbitzuen gaineko mozioa delako. Zentzu horretan, gainera, harrigarria da PSEk herrian gauza bat esatea, Batzar Nagusietan beste bat adieraztea eta Eusko Jaurlaritzan, Osasun mahaian, beste bat agertzea. Azkeneko bi hauetan, kasu honetan, hemen eskatzen den mahaiaren alde agertzen da PSE-EE. Ondorioz, ez dut ulertzen Tolosan, beti, zergatik agertu duten horrelako kontrakotasuna. Kasu honetan, konpetentzia udalari ez dagokigula. Konpetentzia izan edo ez izan Udalak gure herritarrei eragiten diren gaia izanik, berebiziko garrantzia dauka. Ez da gai berria, osasunaren inguruan eta Asuntzion klinikarekin Eusko Jaurlaritzak-Osakidetzak daukan hitzarmen ingurukoa. 2011ko azaroan sinatzen da hitzarmen hau, baina 2011ko ekainaren 9an obra lizentzia ematen zaio klinikari, anpliazio batzuk aurreikusten zituelako, 3000 m2 handitzea klinikaren zerbitzuak handitzeko helburuz. Eta aipatu ekainaren 9an maleta egiten ari zela garai hartako korporazioa, baina lizentzi hori sinatzen da eta gero lizentzia hori bertan behera uzten dute zenbait herritarrek sartutako salaketaren ondorioz modu irregularrean emana zegoela ikusita. Hitzarmena azkeneko 4 urteetan ez da bete, hitzarmenaren inguruko argitalpenak edo zuriaketak, bai tekniko zein ekonomikoak, eskatutakoan ez zaizkigu eman. Nik uste dut azkenekoa 2012koa dela hitzarmenaren zuriaketa daukaguna. Ordutik aurrera ez baldin bazaizue azkeneko 6 hilabeteetan iritsi, ez da egon eta ez da izango eskatu ez delako. Zentzu horretan, behin eta berriz eskatu diren informazioei bizkarra eman dio Osakidetzak. Gaur eskatzen duguna da,

nahiz eta EHBildutik oso argi daukagun, zerbitzua beste eskualdeak dutenaren berdina nahi dugula eta zentzu horretan zerbitzu publikoa, gestio publikoa duena eskatzen dugula, eta hori ez dugu eskatzen gaur. Gaur eskatzen duguna da, 2016ko azaroan, aurtengo udazkenean, hitzarmen berri sinatu behar duen honetan, hitzarmena gauzatu aurretik lan mahaia bat eratzea, gure herritarrei eskainiko zaigun osasun arreta horren gaineko eztabaida hori dagokienei edo dagokien artean emateko. Eta kompetentzia izan edo ez izan, guk kompetenteak gara, dagokigulako gara kompetenteak, bertan egotea eztabaida mahai horretan eskualde eragileak ere ezinbestekoa da. Ezinbestekoa da lau urteetan daramagulako gatazka batean, lau urteetan herriko eragile anitz, milaka sinadurak babestu dutelako mahai hau sortzea, babestu dutelako klinika publikoa. Eta eztabaida honi irtenbidea emateko forma bakarra mahai batean inguruan esertzea dela sinisten dugulako. Egon daitezkeen mesfidantzan atzetik hitz egitearen bitartez ulertzen dugu adostasun batera iritsi behar ginatekeela, baina horretarako ez da nahikoa aurreko astean izan ziren eskualdeko hainbat alkate eta Topako kide batzuk Gazteizko Lege Biltzarreko Osasun batzordean, ez da nahikoa osasun batzordean, sei hilabetez behin gure kexuak gure gai inguruko hausnarketa plazaratu eta galde erreguen bitartez gaia jorratzea. Horregatik, eskatzen dugu 20 milioi euro urtean kostatzen den hitzarmenaren gaineko eztabaida hori benetan mahai baten inguruan ematea. Eskualde honetan gaia pil-pilean dagoelako eta eskualde honetan 4 urte pasata gero gaia mahai gainean dagoelako. Eztabaidari ez zaio bizkarra ematen, ezezkoa ematen, forma bakarra aurrera egitea da eta mahai batean inguruan hitz egitea. Guk gure postura politikoa argi daukagu, ulertzen dugu zerbitzu publikoa dela pertsona erdigunean jartzen duena eta zerbitzu kontzertatua, kasu honetan, gerentziak ondasun ekonomikoa jartzen duen pertsonen gaintetik, eta guretzat hori kontraesana da eta horregatik publikotasuna eskatzen dugu. Mozio honetan lan mahaia eskatzen dugu eta ikuspegi desberdinen arteko eztabaidan horretan adostasun batera iritsi daitekeela ulertzen dugu. Horretarako, eztabaida bermatzeko esparru bat sortzea eskatzen dugu. Ez genuke ulertuko kontra egitea, azken finean, eztabaidaren bitartez denak irabaziko dugulako, adostasunera iristeko bide bakarra duelako. Bestela, Osasun Sailak bere kompetentzia izan arren, eskualde honi bizkarra ematen jarraituko du eta, bestela, beste bost urteetan horrela jarraituko dugu eta herritar talde batek jarraituko dute klinikak eskualde honi eskaintzen dion zerbitzu gaineko kritika egiten, eta kritika objektiboa. Duela gutxi izan ditugu langileak hemen bere hitzarmenaren inguruan. Ratiok ikusten dira eta ez dira ematen. Zabalkuntza eman behar zen, lizentzia hori ukatu zen eta anpliazioa ez da eman. Ikusi besterik ez dago beste eskualdetan nolako zerbitzua daukaten eta guk zer daukagun. Eta postura politikoetatik haratako herritarren interesak daude, eztabaida bat dago eta lan mahai hau eratzea inportantea da. Bakoitzak bere posturak defendatu ditu argudioen bitartez, baina aski da bizkar ematea Lege Biltzarrak edo Osakidetzak eskualde honetan dagoen iritziz honi. Ondorioz, ez genuke ulertuko lan mahai hau ez eratzea, ulertzen dugulako, gure kompetentzia izan edo ez izan arren guri dagokigula hau eskatzea. Aho batez onartu beharko genuke mozio hau.”

... Alkatea: *“EHBildu aurkeztutako mozioari ezezkoa emango diogu aipatuko ditudan arrazoi hauengatik. Mozioan agertzen diren mezuekin ez gatoz bat. Tolosaldeak ez du osasun arretaren gain-beherakadarik. Ez dakit adierazpen horiek egiteko oinarria non dagoen, ze datuen arabera egiten duen, zein balorazioaren arabera egiten du EHBilduk. Orain arte Asuncion klinikaren baitan egin diren asebetetze inkestak positiboak izan direlako. Eusko Jaurlaritzan 90. hamarkadan gauzatu zuen Asuncion klinikaren konzertazioa. Garai haietan eskualdeko eskaria izan zen eta orduko udaleko alderdiko politiko guztiek bat egin zuten herriaren eskaerarekin. Asuncion klinikak konzertazio sistema ezarria du Eusko Jaurlaritzako Osasun sailarekin eta akordio honen baitan Asuncion Klinikak diru ekarpena jasotzen du zerbitzu homologatu bat eskaintzearen truke. Konzertazio sistema hau beste zenbait osasun sistemekin azpiegiturekin gauzatzen du Eusko Jaurlaritzak helburu jakin bat*

lortzeko, sektore publiko eta pribatuaren arteko osagarritasuna bideratuz, adibidez Onkologikoan. Horrelako eredu administrazio ezberdinetan erabiltzen da, urteetan alderdi politiko ezberdinen esku egon direnean ere horrela eginda, eredu berdina mantenduz. Eusko Jaurlearien eskumeneko beste zenbait esparrutan, kirolgintzan edo hezkuntza eremuan. Foru Aldundian eskumeneko Gizarte Zerbitzuetako zerbitzuetan, adibidez, ezinduen egoitzetan, Udalgintzan ere, beste zenbait esparruetan, etxez etxeko zerbitzuan, kale garbiketa zerbitzuan, jardineritzan, hondakin bilketa zerbitzuetan eta beste hainbatetan. Helburu izanik kalitatezko zerbitzua eskaintzea, bitarteko mota ezberdinak erabiltzen dira. Batzuetan bitarteko horiek titularitate publikokoak dira eta beste batzuetan titularitate pribatuak, baina helburu berdina dute. Egia da 2016 urtean Jaurlearia eta Asuncion Klinikaren hitzarmena berritu behar dela eta horren baitan dagozkion balorazioak egin beharko direla, eta, ziur nago, egingo direla. Hori da, hain zuen ere, dagokion erakundeak, hau da eskumena duenak egin behar duena. Berdin gertatzen da, Hezkuntza sisteman Eusko Jaurleariak Ikastolen eta Kristau Eskolen jarduerari buruz balorazioak egiten dituenean, urtez urte, ikasgelen konzertazioa zehazterakoan edo Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuetan Adinduen zentroen balorazioa egiten duenean eta horren baitan plazak kontzertatzen dituenean berak onartutako mapari jarraituz. Osasun arloa Jaurlearien eskumena da eta berari dagokio osasun arreta baloratzea, ez da gure egin beharra. Bai dela gure egin beharra Tolosarrok bermatua izatea beste gainerako eskualdeko herritarrek duten osasun arreta berdina. Hori da gure obligazioa eta, egin behar horri, guk aurre egingo diogu osasun arretak galera badu gure herrian, baina ez dagokigu guri balorazio teknikorik egitea. Guri ez dagokigun bezala Gizarte Zerbitzuko edo Hezkuntza balorazio teknikorik egitea. Jakitun naiz Eusko Lege Biltzarreko mahaian gai hau mahaian gaineratuta dagoela. Izan ere, datorren astelehenerako Tolosako alkatearen agerraldia eskatu delako. Jakitun naiz eskualdeko beste hainbat alkate bertaratu direla Lege Biltzarrera gai honi buruz bere iritzia emateko. Aldiz, gure ardura eta eskumena da Asuncion Klinikaren jardura lizentzia legeztazearena. Udalak jardueraren lizentziaren moldaketa errekerimenduaren bidez eskatu zuen eta eskatzaileak dokumentazioa aurreko asteko ostiralean ekarri zuen, eta orain Udal teknikariak baloratzen ari dira. Aurrerapausoak egiten ari gara egoera hobetzeko. Bide batez, alkatetzako urte bete honetan Asuncion klinikarekin izan ditugun kolaborazioak garrantzizkoak izan dira eta, gainera, modu positiboan baloratzen dira. Adibide moduan, Prebentzio mahaian dauden partehartze edo lñauterietan gazteek eta alkoholaren harremanak sortzen dituen arazoak ekiditzeko pertsonak artatzeko egin genuen protokoloa. Beraz, guzti honengatik ezezkoa emango diogu EHBilduk aurkeztutako mozioari.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Kuriosoa entzutea guri ez dagokigun kompetentzi bat dela entzutea behin eta berriz eta badaude beste zenbait gai, krisialdi ekonomikoaren ondoriozko langabezia adibidez, guri ere ez dagokigula, onartu dugun arren eragiten digula. Enplegua Lanbideri dagokio baina guk ere egingo dugu, eta horretarako inbertituko dugu. Gogoan ditut zuen hitzak,” ez da gure kompetentzia baina dagokigu egitea egoera oso krudela delako” .Kasu honetan ere, kompetentzia ez izan arren, ardura ere bada. Kuriosoa iruditzen zait batzutan baiezkoa esatea justifikazio berdinen inguruan eta, beste batzutan, aldiz, ezezkoa, interesen arabera. Adierazi nahiko nizuke, Olatz, guztion alkate zarena eta herritar eta tolosar askok osasun zerbitzu honen inguruan agertzen duten kexua, kexuak ere, zure ardurak ere badirela. Ardura ere badira eskatzea horren inguruko balorazio tekniko eta ekonomikoa. Eta horiek guk behintzat eskatzen genituenean, eta eskura eman ez zaizkigun horiek ere, eskatu beharko zenituzke. Kuriosoa da esaten duzuenean zuek ez duzuela balorazio teknikorik egingo baina lurramendiko lanposturen kasuan, zuk, zeuk egingo duzu balorazio teknikoa, pleguetan lehenago Lorek salatu duen moduan. Orduan, orain a, gero b, interes eta egoeren arabera, aldatzen zarete; hori krudela iruditzen zait eta ez zait zentzuzkoa iruditzen. Planteatzen den bakarra, lan mahaia bat eratzea, bakoitzak justifikatu dezala bere postura eta argudiatu dezala guk zergatik ikusten dugun zerbitzua ez*

dela beste eskualdeetan eskaintzen den bezain ona, ez direla ratioak beste eskualdetakoak, eta Osakidetza, kasu honetan, defendatuko du zergatik iruditzen zaion hau dela eskualde honi dagokion osasun arretarik hoberena. Baina eztabaida gauzatzeko espazioa eskatzen dugu, eta hori lan mahaia da eta ez dugu ulertzen, eztabaidari beldurra ez badiozue, zergatik ematen diozuen ezezkoa mozio honi.”

... Alkatea: “Ez dakit, agian, nire hitzak askotan gaizki ulertzen izaten diren edo manipulatuak. Garapen ekonomikoaren inguruan esaten dugunean Udalak bere indarra ere jarri behar duela, jarri behar du bere eskumena duen sail horietan, ez besteenetan, baina bai helburu jakin batekin, helburu horren alde egin behar dituen lan guztiak egiteko, kasu horretan enpleguaren gaia eta nola ez garapen ekonomikoaren arloan. Nik ardurari ez diot inoiz muzin egiten eta niri iristen zaizkidan kexa eta iradokizun guztiei, igual ez diot egoki egingo, agian ondo ez, baina aurrera egingo diotela bai, nik eta baita nire taldeak, Udal osoak, gobernukoak eta oposizioak.

lurramendiko zuzendaritzako prozedura horretan nik ez dut balorazio teknikorik egingo, nola egingo dut ba balorazio teknikoak. Beste gauza bat da erabakia, teknikoak egiten duen txosten teknikoaren arabera.”

... Idazkariak adierazten du asmoa zela, balorazio teknikoak zuzendariak egitea, nahiz eta eszedentzian egon. Horrela aurreikusita dagoela.

Jarraian, alkateak hitza eman dio TOPA elkarteko kideari. Partehartzea espedientean gordetzen den DVD jasotzen dena.

11. Galderak eta eskaerak.

11. Ruegos y preguntas.

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): “*Salatu nahi dut aurten jaien antolaketan gertatu dena. Zuek gobernutik gardentasuna eta partaidetza bultzatzen den honetatik eta behin eta behin erabiltzen ari zareten partaidetza eta gardentasunarekin ados nago. Baina, aurrean Sanjoan festak aurten 4 bileretan montatu dira. Lehenengo bileran, aste santuetan, normala den bezala, aurreko festak nola izan ziren eta aurrekontu zein izango zen azaldu zen, besterik ez genuen entzun. Aste Santu ondoren beste hiru bilera, lehenengoan ekarri zen plangintza San Joanetarako eta han geunden ez, ez jai batzordea, historiko izan den bezala, oraingoan, ez dago, bertan ginen artean, Sanjoanetako festen inguruan aipatu ziren, aldaketa batzuk eta planteatzen gauza bati esan zitzaion ezezkoa, aktuzio hori behar zenik ez zelako ikusten. Hurrengo bilera iritsi zenean gure harridurako dena konfirmatuta zegoen, hau da Sanjoanetako egitarau osoa konfirmatuta zegoen. Bertaratutakoak dena konfirmatuta egonik, zer egiten genuen bileran esan genuen eta bigarreanean, ezezkoa esan zitzaion hori, berri azaltzen zen eta gainera konfirmatuta. Orduan, batzordeburuak ikusirik denok gauza bera esaten genuela, atzeraka egin zuen eta galdetu zuen zer egin genezakeen, nik barne, eta azkenean kuadrilako eguneko antolatzaile batek ere baiezkota esan zuen Hurrengo bilerara iritsi ginenean, berriro ere, konfirmatuta zegoen, behin eta berriz ezezkoa eman zitzaion horri berriz ere sartuta. Laugarren bilerarako gelditzen zen gai bakarra txupinazoa nork botako zuen. Eta horrela esan zuen: erabaki dugu txupinazoa.... botako duela, ni ados egonik. Erabaki esan zuen. Nola antolatuko ditugu festa batzuk non hartzen diren erabakian beste batean. Historikoki jai batzordea zerbait izan baldin bada, partehartzailea izan da, gure garaian orain dela 25 urte, funtzionatu egiten zuen, ezezkoa baldin bazen batzorde bertan esaten zen, ez batzordean gauza bat esan eta bestea erabaki. Aurten, Festak lau*

batzordeetan antolatu dira eta hori partaidetzarekin egiten bada guztiz ezinezkoa da. Aurten horrela egin da erabakian bileretatik kanpo hartua. Horretaz aparte, gardentasunaren inguruan ez dugu ikusi kopuru bat ere. Aurreko urteetan kopuruak esaten ziren, badira 3 urte erabiltzen dela sistema bat kopuruak jarriz gure kudeaketarako ere. Orain, ez dugu zenbaki bat bilera guztietan. Bultzatu nahi badugu partaidetza eta zuek ere hori bultzatu nahi duzuela argi dago, orain arte egon ez den batzordea daukagu, Partehartzea eta Gardentasun batzordea. Ondo legoke batzorde horrek gainbegiratzea udaleko beste batzordeak gardentasun eta partaidetza aurrera eramaten duten edo ez. Aurtengoa inoiz ez da ikusi.”

... Alkatea: *“Ni ez nago batzorde horretan, baina esan diezazukeena funtzionamendua aldatzeko inolako erabakirik ez dela hartu. Orduan, koordinazio falta bat sumatu dezaket edo gaizki ulerturen bat. Proposatzen dizut hurrengo batzordean gai hau mahai gainean jartzea eta dauden zalantzak zuritzea, zenbakiak emateko ez dago inolako eragozpenik, gardentasun osoz jartzen dira mahai gainean.*

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *Hemen esan dudana batzorde bertan esan nuen, azken kultur batzordean, eta ondoren laugarren bileran, ez zuen zentzurik gainera, txupinazoa zeinek botako zuen txupinazoa. Eta batzordeburuak esan zuen: erabaki dugu xxxx botako duela Salatzen ari naizena nik kultur batzordean salatu dut eta ez zait kasu gehiegirik egin, eta bigarren eta hirugarren bileran salatu nuen Sanjoan festak antolatuta zeudela. “*

... Nuria Carbonel Miranda (EAJ-PNV) :*“Txupinazioarena erabaki dugu ez nuen esan, pentsatu dugu nori esan nuen.”*

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu) . *“Aktak ez dago batzorderik ez delako, baina horrela izan ba zen ere ez zenien luzatu eskua bertaratutakoei, ez zenigun eman beste aukerarik. Egia da Udalak egin behar duela proposamena baina entzun egin behar zaie beste kideei.”*

... Alkatea: *“Beste galderarik edo iradokizunik ez badago eta modu positiboan bukatzeko plenoa, aipatu nahi nuke aurtengo urtea Tolosan kirol mailan izugarria izan dela. Batetik, herritar talde baten ekimenez Zumardi proiektua jarri da abian; TAK Arraun klubak tenporada itzela egin du; TAKeko saskibaloiko taldea ez da gutxiago izan; Erritmikako Infantil taldea Espainiako txapeldunak izan dira neguan; Tolosa CFeko futboleko infantil neskak Gipuzkoako txapeldunak izan dira, futbol senior mailako mutilak hirugarren mailara igo dira, eskubaloian igoera fasea jokatu da Tolosan eta txapeldunak ohorezko zilarrezko mailara igo dira; IVX ibilaldi neurtuan lehenengoa iritsi zenak ordu itzela egin zuen eta azkenengoari izanak ere, hark meritu gehiago du, banaka-banaka aurten Tolosan kirol mailan ibili direnei, denei zorionak benetan, itzela izan da, gazte batzuk hemen zebiltzan “goazen Tolosa txapeldun”. Hauei, denei zorionak.*

Besterik gabe, gaueko 9:25ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 9 horas y 25 minutos de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA